

Bertso Berriak

JUAN BASURKO'K

IBILKARI

BIKAIN BAT

dan

Sebe Peña Albisu'ri

jarriak



1953-ko maietrian egin zuan Xebe Peña Albisu  
emen kantaren dan jira an. Beraz, urte berean  
edo urtegorokan argitaratuko zan libururka an.

Euskal-Erria'k oso gogoko izan ditu beti laisterka-  
apustuak. Gure korrikalariok marka ederrak egiñak dituz-  
ta mendiko malda eta bide-zelaietan ibiltzen. Etxarri, "na-  
parra"; Mujika Manuel "amezketarra", "Juanagorri",  
"Juanzarrena", "Mugerza", Aya ta Arruiz'ko "txikiak"  
eta beste asko eta asko izen aundia lortu zuten. Aiek bu-  
rrukak! Azpiroz, Pagailleta, Tolosa edo Lasarte'ko plazan.

"ORIXE" bertsolari-nagusi ta maisuak "EUSKALDUNAK"  
liburu bikañean dion eran:

"Alaxe doaz "ba-aiz eta ba-nauk"  
batak bestea autsi arte."  
Alako baten saietzez saiets  
Urrats bat alde eskas dute

Gaur Baxurko bertsolariak Xebe Peña-Albisu dan  
"Ibilkari bikain bat" agertzen digu. Ez ordea erronkalari  
ta apustu-zale baizik oinkari kirol-zale, buruz argi ta bio-  
tzez garbi. Gizon bat neurritz eta jakitez leiatzen danean  
noraño iritxi diteken erakusten digula.

Xebe Peña'k antziñako Maraton laisterkari ark bezela  
albistari pozgarri bat ekarri digu. Anitz urtez!

## IBILKARI BIKAIN

### B A T

— 1 —

Mendi artean nola bai dagon  
gure Euskal-Erri maitea,  
ez da arritzeko bere semeak  
mendi zale izatea;  
errian zintzo igaro ondoren  
lana egiñaz astea,  
ñorentzat ez da atsegingarri  
iñoiz mendira joatea?

— 2 —

Gure aurreko guraso zarrak  
gaurko gazteen antzera,  
iñoiz gogotsu joan oi ziran  
mendi aizeak artzera;  
zentzua garbi, biotza alai  
bularrak indartutza,  
ta noizean bein otoitz egiñaz  
goiko Jauna agurtzera.

— 3 —

Txalogarria da, ba benetan  
mendiko zaletasuna,  
goiko aizeak onak dirade  
indartzeko osasuna,  
errietako griña okerrak  
menderatzeko txit ona:  
nere ustean gaztediantzat  
auxe da bide zuzena.

— 4 —

Mendigoizale oien artean  
badira batzuk trebeak,  
trebe artean badira ordea  
onak bañore obeak ...,  
jende geienak naiz uste izan  
gaien dirala gazteak,  
sinista zagun lan ortako-re  
onak dirala urteak.

— 5 —

Liburu txiki txukun batean  
argi ta garbi jarriak  
irakur ditut Tolosar baten  
ibiltze arrigarriak ...,  
orrek badaki mendi zearka  
nuntzu dauden basarriak  
orrek badaki laixter bidetik  
zuzen arkitzen erriak.

— 6 —

Tolosan jaiio eta azia  
Xebe Peña du izena,  
berrogei eta bost urte ondo  
beteak dauzkan gizona,  
ondorengoak jakin dezaten  
jaun orrek egin duana,  
saiatu nai det, emen azaltzen  
al dedanik garbiena.

— 7 —

Gorputz bulartsu osasuntsua  
zentzua guziz argia,  
Euskal-Erriko mendi gañetan  
asko aldiz ibillia,  
aspalditikan zeukan jaun onek  
bere gogo bete naia,  
ta ortarako burua argituz  
luzaro zintzo zan saia.

— 8 —

Egun batean bere lagunei  
esanaz zeukan asmoa —  
"Euskal-Erriai bira oso bat  
det, emateko gogoa ..." —  
berealaxe eskein zioten  
beren laguntza osoa,  
lenaz gañera indar berrituz  
beraren biotz beroa.

Bere lagunen itzak entzunez  
 artu zun erabakia,  
 Loraila'ren erdi aldera  
 zala sasoi egokia,  
 egun aietan izango bai zan  
 illargi bete-betia,  
 ta gauzez askoz errexagoa  
 mendi bidez joatia.

Nundik noraño zeñek lagundu  
 nun lo egin bear zuan,  
 neurri guziak alde z aurretik  
 ustez artuak zituan,  
 zer jan, zer edan, nundik ibilli,  
 buru austerik etzuan,  
 irten baño len pauso guziak  
 garbi bai zeuzkan buruan.

Loraillaren ogeita-laua  
 gaueko amabietan,  
 Bilbao'n dagon eliz-nagusi  
 ederraren ateetan,  
 otoitz egiñaz an zegon Xebe  
 arratz oroigarri artan,  
 bere ametsa beteko zula  
 itxaropen osoetan.

Otoitza utzita gurutz egiñaz  
 artu zun Begoña aldera,  
 Santa Marina ta Larrabezu  
 zuzen dijoa aurrera,  
 Garaitondo ta Zugaztieta  
 gero Albiz ibarrera ...  
 egun txinta da, goiz-argi-printzak  
 poza dakar biotzera.

Gure gizona poztutzen dute  
 txori abesti alaiak,  
 kea jario asiak dira  
 inguruko basarriak,  
 Arbazegi ta Markina dira  
 gero urrengo erriak  
 oik biak ere gelditzen dira  
 laixter atzera utziak.

Bere bidean zuzen dijoa  
 Mendaro dauka buruan,  
 zer jan, zer edan prest antxe dauzka  
 iritxiten dan orduan,  
 egitan maite duten lagunak  
 an dauzka bere onduan,  
 Donosti aldera bidean berai  
 lagundutzeko asmoan.

Mendaro utzita, berriz aurrera  
 Garagartza'tik barrena,  
 Lastur gañeko Deun Nikolas'i  
 bixita egiñaz urrena,  
 Uztapide'ta Endoyan gero  
 andikan laixter Arrona ...  
 Abendaño'ko errota-azpian  
 txandatur berriz laguna.

Orain emendik Orio'raruntz  
 gero artuz ezkertera,  
 mendi zearka pauso bizian  
 lasai dijoa aurrera,  
 nekerik gabe, errex egiñaz  
 gero Donosti'n sarrera,  
 illunabartxo goxo batian  
 zortzi-terdiak aldera.

Artzai-Onaren eliz aurrean  
 otoitz alditxo bat egin,  
 ostatura joan, gorputza igurtzi  
 ortako diran gauzak,  
 etzan da jarri luze-luzea  
 jan ta eranari ekin,  
 gero patxaran bizarra kendu  
 garbituz ur epelakin.

Lo puskatxobat egin ondoren  
 oietik jeiki zanean,  
 baselinakin oñak igurtzi  
 zizkioten zuzenean,  
 goizeko irurak jotzera doaz  
 Artzai-Onaren torrean ...  
 aita gure bat otoitz egin da  
 jartzen da berriz bidean.

Ergobia ta, Oyalume'tik  
 Fagollaga'ra dijoa,  
 Ereñozu'tik Pikoaga'ra  
 gauzez egin du naikoa,  
 egun txintaren argia dator  
 au beti da poztekoa,  
 aldapa gora asi ta laixter  
 len Iraola-bekoa.

Gero pixka bat aurrera joan da  
 Iraola goikoraño,  
 andik "Etzela" izena daukan  
 mendi bizkar gañeraño,  
 "Abade-gurutz" igaro ondoren  
 Urepel ingururaño ...  
 lasai dijoa gure gizona  
 oso lasai oraindaño.

Leizelarre'ra inguratu da  
 Baztarla dauka urrena,  
 Ezkur-gañeko mendi bizkarrak  
 "Tardoa" dauka izena,  
 bazterretara begiratuaz  
 an dago gure gizona,  
 ongi bai daki Otzola aldera  
 nundik dan bide zuzena.

Zuparrobi're atzean utziz  
 iritxi nairik Otzola  
 badaki ziur geroxiago  
 Arraras laixter dagola,  
 bere ondoan zuan lagunai  
 mintza zitzaion onela:  
 "—Zerbait naiean eskean zeukat  
 barrendik nere sabela.—"

Iritxi da ba, Arraras'era  
 bazekien ango berri,  
 arriz eindako ostatu zar bat  
 lendik ikusia sarri,  
 ango jendeak agurtu zuten  
 esku emanaz alkarri,  
 pixkat atsegin nai baldin bazun  
 oia prest zioten jarri.

Oian gañean luze etzan zan  
 garbitu zizkaten oñak,  
 bai txandature berriak jantziz  
 txukun-txukun galtzetiñak,  
 lagun guziok berai laguntzen  
 egin arren alegiñak,  
 Xebe ernatu zun bereala  
 aurrera joateko griñak.

Oñak garbitu, sabela bete  
 indar berriak artuta,  
 Beuntza-larretik Pellokaska'ko  
 bizkar gañera igota,  
 Berriuso igarora du  
 oso atzean utzita ...  
 egun artako ibil aldia  
 dauka ia bukatuta.

Nola gaua zan, agertu ziran  
 Iruña aldeko argiak,  
 ara begira pozez betierik  
 jarriak zeuzkan begiak,  
 iritxi orduko eskeñi nairik  
 Gora esker ugariak,  
 otoitz egin zun eliz aurrean  
 lurreratuz belaun biak.

Eskerrak gure Xebe au dala  
 biotz aundiko gizona,  
 bestela Iruña'n bukatuko zan  
 bere ibiltzeko lana,  
 bat baño geigok belarri ondora  
 garbi zioten esana:  
 "Gazteiz baño len geldiko zera  
 bide erdian etzana."

Ezin esan dan kezka bat zeukan  
 Xebe'k sartua buruan  
 oera joan da ordubetea  
 loak ezin artu zuan,  
 deitu zioten bere lagunak  
 ordubiak inguruan,  
 naiz lo gutxi ein, Gazteiz aldeko  
 bidea utzi nai etzuan.

Orain Arraba utzi ta bera Irumugartietara, Zeberio'n e berriz geldituz jan-edan zerbaít artzera, ez du luzaro an gelditu nai laixter irten da bidera, bere buruan zuan ametsa gizon legez betetzera.

Bilbao barrengo kaleetara au inguratu zanian, antxe joan zan burua makur elizara zuzenian, ain ibil-aldi arriagarria bukatu ondoreñan, alako ezin esan dan poz bat dararamaki barrenian.

Bi ordu-t'ardi, lo ein ondoren deituz urrango goizian, Xebe ta bere iru lagun on eliz aurrera joan ziran, beti bezela otoitz egin da zazpi orduak aitzian, abiatu zan, ezin kabituz poza bere biotzian.

Mendiguren-Gopegi-Murua, igaro ta goaz gora, uste gabean bustitzen duan xirimiri-pean gera, Azero-gaña iritxi degu andik Aldaminape'ra, geroxeago an sartu giñan ardi-borda zar batera.

Arratsaldeko sei-ta-laurdenak berriz ekin bideari, luzatu gabe atzean utziz Arrigorri, ta Atxuri, "Txantxan" dei zianon lekutik bera artuz ezker aldeari, burni bidean aurrera joan da iritxiiaz Ullibarri.

An zerbaít artu ta irten giñan, illuna gendun gañian, pauso ugari antxe emanaz burni-bide bazterrian, nekeak baño, geiogo loak tentatuaz azkenian, ta ur pixka bat ezin arkitu botatzeko arpegian.

Ordu erdi bat geroxeago berriz eliza aurrean, Gazteiz aldera artu baño len otoitz belauinak lurrean, Zeruetara apal eskatuz lagundutzeko bidean, gurutz egin da abiatu zan pauso arin da luzean.

Arazuri'tik Izkuen gora Sarbil mendi bizkarrera lagunai zion: —Illunpe ontan zuzen joango ote gera?— egun sentian argitasuna dator Zerutik lurrera, bazterretara begiratuaz jarraitzen dute aurrera.

Egun sentia iritxi arren, laño ugariak nunai, Gauez lo gutxi eginagatik Etxetik irten zan alai baiña buruan zuan neurrian Nai izan arren, ezin jarrai ez bait zebillen goiz artan, jorratxl gogo zuan bezin lasai.

Al zan bezela, beti aurrera, azaldu zan illargia, bukatua zan lorailaren egun ogeita zazpia, egun berrian sartuak giñan igaro zan gauerdia, Gazteiz bertara iritxitzean zan ordubata-t'erdia.

Urdanoz utzi, ta Lizarragan iritxi ziradenian, bere zai antxe lagun on batzuk bazitun aldamenian; aski poz zeuden Xebe bulartsu an ikusi zutenian zerbaít artuta, aurrera berriz abitu zan zuzenian.

Gazteiz'en sartu, lenengo lana eskerrak eman Jaunari, eliz-nagusi ate ondoan umill egiñaz lan ori, pozaren-pozez begietatik negar malkoak ugari, gora begira zegoalarik antxe zitzaizkan ixuri.

Lizarraga len, gero Olazti Legaire, eta Bikuña, bizkarrez-bizkar iritxi arte Opakua'ko gain-gaña, goizean galdutako denborak irabaziz alajaña, ondo merezi zuen ba Xebe'k an artu zun atsegiña.

Oñak garbitu bear bezela gero gorputza igurtzi, biotza eta birlikak ondo ote zebiltzan ikusi, gero oera lo egitera ondo afalduz lenbizi ... kanta bearrrik etzun gau artan ixil-ixil zuten utzi.

Milla bederlatzi eun eta berrogeita amairuan, lorailaren azken aldera Xebe'k auxe egin zuan, borondate dun lagun on aiek gero bilduz inguruan bazkari goxo-goxo bat eñiez an besarkatu zituan.

An kendu zitun legortu nairik Xebe'k soñeko jantziak, goitlik beraño busti bai giñdun bere indarrez euriak, puxkat egon da, berriz aurrera lagunduz Paulo artzaiak, onek bai zekin nundikan zeuden laixter bide egokiak.

Merezia du Peña'tar Xebe'k txit ondo, nere ustean, Euskal-Erriko mendigoizale jator denen izenean, ibil-aldi au garbi jartzea argazki batzun artean, urregorritzko letrak dituen liburu apaiñ batean.

